

UDAL BANDOA:

UDAKO SOLSTIZIOKO SUAK DEBEKATZEA ZALDIBIAN

Zaldibiako Udalak herritar guztiei jakinarazten die:

Euskalmeten iragarpena dela eta **Alarma Gorria** ezarri da muturreko tenperatura altuengatik ekainaren 23 eta 24rako.

Gainera, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak erakunde eskudunei gomendatu die egoera aztertzea eta, hala badagokio, surik ez piztea baso-masetatik hurbil dauden eremuetan.

Gomendio horiei jarraituz, eta egoerak prebentzio-neurri bereziak hartzea eskatzen duenez, herritarren segurtasuna bermatzeko eta sute-arriskua prebenitzeko helburuarekin, Zaldibiako Udalak honako erabakia hartu du:

DEBEKATUTA GERATZEN DA UDAKO SOLSTIZIOA OSPATZEKO SUAK EGITEA ZALDIBIAKO UDALERRI OSOAN

Debeku hau udalerriko eremu guztietan aplikatuko da, bai espazio publikoetan bai pribatuetan: kaleetan, plazetan, landa-eremuetan, baserri inguruetan, lorategietan eta bestelako gune irekietan.

Salbuespen bakarra: PLAZAN antolatuko den ekitaldiko sua baino ezingo da piztu.

Ekitaldi honek segurtasun neurri guztiak beteko ditu eta ohikoa baino su txikiagoa izango da.

Erabakia ulertuko duzuelakoan, eskerrik asko.

ZENTZUZ ETA ARDURAZ JOKA DEZAGUN!!

ZALDIBIAN, 2026ko ekainaren 23an.



ZALDIBIAKO UDALA
Alkatetza

alkatetza@zaldibia.eus
www.zaldibia.eus

[(0034) 943 880 357]